HIRI-IBILBIDEEKIN ERLAZIONATURIKO HIRI-PROIEKTUAK

5.3. PRAKTIKA

5.3. praktika ere taldeka izango da.

5.2. ariketako 3 hiri-ibilbideen analisian oinarrituta, hiri-proiektu bat garatu egin beharko da.

	NOLA EGIN	ZER EGIN
PLANO KOPURU LIBREA	- Eskala: **Ezberdinak** (zuen erizpidearen arabera; 1:1.000 kokagunea zehazteko egokia izan daiteke, eta 1:200 proiektuak definitzeko) - Tamaina: **A-1** - Formatoak: Digitalki, USB bitartez (PDF, 300 d.p.i. + Powerpoint aurkezpena edo irudi solteak)*, irakasleak ez badu kontrakoa esaten	- Aukeratu 3 hiri-proiektuak egiteko kokaguneak (erlazionatuak egon daitezke). Arrazoitu egindako aukerak. - Proiektuak ulertzeko beharrezkoak diren azalpen laburrak eta marrazkiak landu (oinplanoak, ebaketak, altxaerak, perspektibak…)

Proiektuak 5.2. ariketan landutako ibilbideekin erlazionatutak egongo dira, ibilbide bakoitzarekin proiektu bana egin beharko delarik, 3 proiektu guztira:

- **Kultura-ibilbidea**rekin erlazionatutako hiri-proiektua. Honako eraikinak diseinatu beharko dira, espazio publiko baten inguruan (plaza bat izan daiteke):
    a. Erabilera anitzetarako anfiteatro estaligabea.
    b. Aldi baterako erakusketetarako pabiloia.

- **Kirol- ibilbidea**rekin erlazionatutako hiri-proiektua. Honako eraikinak diseinatu beharko dira, espazio publiko baten inguruan (plaza bat izan daiteke):
    a. Frontoi estaligabea.
    b. Bolatoki estalia (irekia izan daiteke).
    c. Skateboard *halfpipe* pista.

- **Ibilbide geldoa**rekin erlazionatutako hiri-proiektua. Honako eraikinak diseinatu beharko dira, espazio publiko baten inguruan (kasu honetan, parke lineala):
    a. Parke lineala.
    b. Umeentzako jolastokia.
    c. Te-pabiloi terrazaduna.

Ez dira neurriak ematen, haiek finkatzean ariketaren helburuetako bat datzalarik, kontutan izanda herri bakoitzeko biztanlegoa.

* EMATE-DATA: Apirilaren 15 eta 16an, taldearen arabera. Aurkezpen publikoak egingo dira klasean, horretarako beharrezkoak diren irudiak ekarri beharko direlarik (edo Powerpoint aurkezpenak). Orduan 5.2. eta 5.3. ariketan laburki azalduko dira (gehienez 10 minutu talde bakoitzak).